

## 07. BALIABIDEAK

Gure enpresak aurrera egin dezan behar ditugun baliabide garrantzitsuenak hainbat dira. Alde batetik, **baliabide fisikoen esparruan**, etxeak montatzeko makineria, lehengaiak edo materialak eta pabiloi bat non ekoizpena aurrera eramango dugun eta ofizinak egongo diren barne egongo lirateke.

**Baliabide intelektualei** dagokienez, gure lehenengo helburuenetariko bat ideien **patentea** lortzea izango litzateke. Horrez gain, gure langileei **estrukturen muntaketan goi mailako gradu** bat eskatuko diegu, eta baita ere kamioien gidariei gidatzeko **karneta** ere. Guzti honen helburua gure langileek ahalik eta ezagutza handiena izatea da, eta ondorioz, **kalitatezko zerbitzua eta produktua** eskaini ahal izango dugu.

Beste alde batetik, **giza baliabideari** dagokiolarik, lau jabeoak arestian aipatu dugun legez, bakoitzak enpresan bere zeregina izango du, trebeak diren eremuetan kontuan hartuz. **Ekain bezeroekin harremanetan** arituko da, **Manex marketing-sailean**, hots, sare sozialak eta webgunea aurrera eramango ditu, **Julenek finantza-sailean** lan egingo du eta, azkenik, **Jon ekoizpen-saileko arduraduna** izango da. Horrez gain, etxeen muntaketarako enplegatuak, kamiolariak eta azpikontratatuak igeltseroak edo konpontzaileak behar izango ditugu.



Azkenik, aurreko guztia aurrera eramateko, **finantza baliabideak** oso beharrezkoak izango dira. Gure proiektua finantzatzeko hainbat ekitalditan aurkeztuko dugu **inbertitzaile desberdinei** gure **konfiantza** emanez, eta enpresa hasteko baldintza hoberena edo kapital handiena uzten digutenean hasiko gara. Horrez gain, **interes-tasa baxuena** eskatzen dugun bankuari mailegua eskatuko diogu behar izanez gero.

